

Laudio, 2022ko martxoaren 24an

Laudioko Udalak, udalerriko kultura- eta natura-baliabideetan zentratutako Turismo Plana aurkeztu du

- *Laudio Hazi Udaleko Garapen Agentziak koordinatzen duen proiektu berriaren helburua Laudio Euskadiko txangozaletasunaren panoraman kokatzea da, udalerrian eta Aiaraldeko eskualdean atzemandako indargune nagusietan oinarritutako bost ardatzetan zentratuta*
- *Turismo Planaz gain, laudiotarrentzako bost zerbitzu berri eta marka irudi berria garatu dira Laudio Haziren eskutik*

Udalerriko lehen Turismo Planaren bitartez, Laudio Hazi Udaleko garapen agentziaren helburu nagusia Laudioko paisaia eta kultur errealitate ezberdinen balioa azpimarratzea eta integratzea da. Turismoaren garapenean esperientzia eta ibilbide eskasak izan arren, Laudiok historia aberatsa, kokapen estrategikoa – trenbide eta errepide konexio bikainak ditu– eta merkataritza, ostalaritza eta enogastronomia potentzial bikainak ditu. Horrez gain ezin da ahaztu batez ere beirarekin lotuta dagoen bere industria garrantzitsu eta bereizlea.

Euskadiko txangozaletasunaren panoraman eta merkatuan protagonismo handiagoa lortzeko, Laudio Hazi agentziak datozen urtetan landu beharreko dinamizazio estrategia diseinatu du. Izan ere, planaren zerumuga 2025ean finkatu

da. "Turismoa aldarrikatzen dugu, gure ustez udalerrian aberastasuna eta enplegua sorrarazi ditzakeen jarduera ekonomikoa delako, betiere jasangarritasunaren ikuspegia lagun. Azken urteotan, Laudio hurbileko merkatuetarako txangozaletasun berde eta naturalerako gune ospetsua izatera heldu da, kultura eta enogastronomia eskaintza aberatsak tarteko. Horrela, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreak era aktiboan kolaboratzen du udalerraren garapen turistikoan. Lanarekin eta industriarekin erlazionatutako turismoa eta ekitaldietan oinarritutako turismoa ere balio turistikoaren katean daude eta udalerria posizionatzeko bereizgarri potentzial garrantzitsua dute", azpimarratu du Ander Larrinaga Hiri Garapeneko zinegotziak.

Turismo Plana diagnosi batetik abiatuta prestatu da eta udalerrian atzemandako indargune nagusietan oinarritzen da, Aiaraldeko gainerako baliabideekin duen loturan, besteak beste. Horrela, barne hartzen dituen ekintzek inguruneak aukerak aprobetxatzea ahalbidetzen dute; aukera horiek Laudioko eta ingurutako funtsezko eragileekin kontrastatu eta partekatu dira, APILLEkin, erreferentziazko saltokiekin, Laudioko turismo eta kulturarekin erlazionatutako enpresa eta pertsonekin, etab.

Aurreikusitako ekintzak bost ardatzetan banatzen dira:

- I. **Turismoaren antolaketa eta kudeaketa.** Ardatz honen helburu nagusia Laudio turismoa kudeatzeko metodo berria sustatzea da, inplikaturako agente publiko eta pribatuak parte hartzera bultzatuz.
- II. **Eskaintza eta produktu turistikoak.** Planak Laudio erreferentzia-jomuga gisa finkatu nahi du lau produktu nagusitan: natura, kultura eta ondarea, merkataritza eta enogastronomia eta ekitaldiak eta azokak. Gainera, industria elementu erakargarri gisa sustatu nahi da.

- III. **Baliabide turistikoak.** Lan-ardatz honen barruan, Laudioko baliabide turistiko nagusien garrantzia azpimarratzera zuzendutako hainbat ekintza sartzen dira (ingurune naturala, Ermualde, Lamuzako Parkea, hirigunea, merkataritza-eskaintza, ondare berezia, etab.), teknologia funtsezko elementu modura txertatzen duen garapen jasagarria bultzatuz.
- IV. **Komunikazio eta marketin turistikoak.** Ardatz honen helburu nagusia Laudioren komunikazioa eta posizionamendua lantzea da, inguruneke eragileekin lan eginez.
- V. **Sektorearen lehiakortasuna.** Eskualde mailako ekimena denez, jarduketa-lerro honek programa hauetan enpresen partaidetza sustatzeko eta sektoreko agenteen lehiakortasuna hobetuko duten prestakuntza ekintzak identifikatzeko beharra azpimarratzen du.

Lanerako ardatz horiei erantzuteko, 2022-2025 aldian gauzatuko diren zenbait proiektu planteatu dira. Aipagarrienak hauek dira:

- Turismo informazio-gune bat irekitzea. Ziurrenez, Zumalakarregi Etorbideko Kioskoan, Lamuza Parkearen alboan, egongo da
- Eraztun Berdea: udalerrria inguratzen duen eta Ermualde, Arraño, Larrazabal, Areta edo Larrea eremu edo gune interesgarriak lotuko dituen 42 kilometroko ibilbidearen garapena. Zirkuitu horrek gune berdeak, basoak, hiri-parkeak eta gailurrak izango ditu.
- Baselizen ibilbidea sortzea, horiek identifikatuz eta beraien garrantzia bistaratzuz, gure udalerriko ondareko elementu berezi diren heinean.
- Udalerriko gune interesgarrietan, Ermualden edo Lamuzako Parkean, bisita gidatu eta gaikako zerbitzuak martxan jartzea.

- Ermualde txangozaletasun naturalerako erreferentzia-gune gisa finkatzea, teknologia berriak erabiliz santutegiaren eta bere ingurunearen ondare, etnografia eta arkeologia mailako garrantzia ezagutarazteko.
- Tokiko produktuen garrantzia azpimarratzea Audioren ezaugarri gisa, 0KM produktuen ezagutza eta kontsumoa sustatzeko ibilbideak, dastatzeak eta bestelako zerbitzuak eskainiz.
- Kultur eta kirol arloan ekitaldi, azoka eta jaialdi berriak erakartzea.

Laudio Haziko zerbitzu berriak

Turismo Plana Audio Hazirako definitutako estrategia berriaren barruan dago, eta Agentziaren xedearen eta eskainiko dituen zerbitzuen gaineko hausnarketa sakona egin ondoren prestatu da ondoren. Hausnarketa horren helburua udalerrirako eta oro har eskualderako balioa ekarriko duen eragile gisa finkatzeko eraldaketa bilatzea izan da.

Horrela, Audio Haziren xedea, Audioko ekonomia eta gizarte arloko garapen jasangarria sustatzea da, ekonomia eta gizarte mailan aberastasuna ekarriko duten proiektuen sorrera eta gero eta lehiakortasun handiagoa bultzatuz eta audioarrei kalitatezko enplegua eskuratzeko aukerak bideratuz.

Horregatik, Audio Haziren barruan dagoeneko Audioko herritarrei eta enpresei zuzendutako zerbitzu berriak diseinatzen eta gauzatzen ari dira lanean, esaterako lanerako esparru berriak (enpresa mintegiak eta coworking eremuak), enpresa jarduera abiarazteko derrigorrezko oinarrizko ekipamenduekin hornituak. Helburua jardueraren hasieran enpresa txikien edo ekintzaileen instalazioa erraztea da, horiei finkatzeko lagungarriak diren zerbitzuak ere emanez. Audio Hazi agentziak

planteatzen duen beste nobedadeetako bat "kultura ekintzailea" izeneko programa da; horren helburua ekintzailetza sortzea eta, gazteen artean batez ere, lan aukera gisa duen balioaren garrantzia azpimarratzea da.

Halaber Laudio Group elkarteak sustatu nahi da enpresen eta Udalaren arteko lanerako mahai gisa. "Enpresen artean elkartearen existentzia ezagutarazi behar dugu eta elkarteko kide bihurtzea sustatu, kolektiboaren jardura koordinatu, gauzatu beharreko proiektuak identifikatu eta bultzatu", esan du Andoni Orue Garapen Ekonomikorako zinegotziak. Gainera, Laudio Hazitik enpresak bultzatzeko beste zerbitzu batzuk daude eskura, horien artean prestakuntza ikastaroak, Laudioko produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko metodo berriak inplementatzeko Hazinnova proiektua, edo GIS industrialak. Azken horrek ekonomia-industria jardura non kontzentratzen den eta enpresa arloko ekimen berrien ezarpenerako eskura dauden eremuak zeintzuk diren identifikatzen du.

Enplegu programei dagokienez, Udalak horien garapenerako apustua bikoiztu du. Programa berritzaileenetakoa "Herri Laguntzaileak" da. Laudio Hazik horri buruzko oso balorazio positiboa egin du. "Udalerrirako figura garrantzitsua dira, eta zerbitzu bikaina ematen dute", erantsi du zinegotziak.

Laudio Haziren eraldaketari bultzada handiagoa emateko, transmititu nahi dituen balioekin lerrokatutako markaren irudi berria izango du Agentziak hemendik aurrera. Markaren irudi hori, Udalak sustatutako ideien lehiaketa irabazi duen Asier Rodriguez gazte laudioarrak diseinatu du.